

“MENDIBURU GIPUZKERARA ITZULIA”

Frantzisko ONDARRA

Badira zenbait urte Donostiako kaputxinoetan gordetzen den euskal kodize bati buruz lan bat argitaratu genuela¹. Artean ez genekien nork, non eta noiz izan zen idatzia. Patxi Altunak Mendibururen lan argitara gabeak plaza-ratu zituenean², konturatu ginen oiartzuarra izan zela gure testuaren egilea, baina beste esku batek XIX mendean gizpuzkeraaz ipinia. Bigarren lan batean Mendibururen eta bere itzultzailearen bi testu labur aurkeztu eta erkatu genituen³. Hirugarren lan honetan *irakurraldi* oso bat erkatzen dugu, lan sakon bat egin nahi duenari egiteko hori pozik uzten diogula.

1. MENDIBURUREN HIZKERA

Patxi Altunak dioskunez, mundu guztiak Mendibururen hizkera iparraldeko goi—nafarrera deitzen du, baino inork ez omen du ukatzen gipuzkeraren zenbait ukitu eta kutsu ere baduela. Ez dela hori harritzeko, dio, Iruñean hogeita hamaika bat urte eman baitzituen, eta gainera Oiartzun haren jaioterria, euskalkiei dagokionez, nafartzat jotzen baita⁴.

Lan horretan bertan Mitxelenak dioenez, Mendiburuk “jaioterriz eta ohi-turazko bizilekuz, Nafarroarako zuen isuria, eta bere lanbideak ere horretara

¹ Francisco Ondarra. “Manuscrito de pláticas en euskera guipuzcoano en los Capuchinos de San Sebastián (I)”, FLV, 30 (1978), 524-546; ídem (II), 91-119 -ik. 100-101-.

² Patxi Altuna, *Mendibururen Idazlan Argitaragabeak*. I, Euskaltzaindia, Euskararen Lekukoak-4, Bilbao 1982.

³ Franciso Ondarra. “Dos pláticas inéditas del P. Sebastián de Mendiburu”, FLV, 47 (1986), 151-165 -ik. 152. orr, 4-.

⁴. Mendibururen, LXIX. orr., 1.

behartzen zuen". Horregatik, "giputz-nafarreraren arteko neurria eta erdi aldeko bidea" asmatu eta segitu zuen⁵.

Azkuek, Bonaparteren sailkapena jarraituz, "Goinapartzat" zeukan Irun, Oiartzun eta Hondarribiko euskara, eta alde horretako adizkiak biltzea proposatzen die bere euskaltzain lagunei. Berak bere aldetik Mendibururen *Jesusen Amore-Nequeei...* liburuko adizkiak aurkezten ditu, herri horietako kideak bezala⁶. Egin eta *ezan aditzei buruz hau dio: "Beste Giputz idazle geienak... maiz laguntzaile baten ordeztu beste bat artzen dute, gipuzkerazko ezan utzi eta Bizkaierazko egin artu". Mendiburuk behin bakarrik egin omen zuen aldaketa hori⁷. Bestalde, gipuzkeraz "gizonai" esaten omen da, baina oiartzuarrek "eriet", "gorrei" etab. forma erabiltzen du⁸.

Villasantek, bere aldetik, honela idazten du: "De ahí también que el vascuence de sus libros tenga un conocido tinte navarro". Beraz, gipuzkeraz idazten duela ulertu behar dugu? Aita Zabalaren iritzia dakar aurrerago eta haren hitzak aipatzen ditu: "Su vascuence guipuzcoano mezclado con navarro es tan bueno..."¹⁰. Sarasolak eré gauza bera esaten bide du: Kardaberaz eta Mendiburuk literatura mailara altxatu omen zuten gipuzkera darabilela, baina eransten du bigarrenaren euskara *nafartuago* aurkitzen dela besteara baino¹¹.

2. BI TESTU LABURREN ERKAKETA

Goian aipatu dugun gure bigarren lanaren laburpena hau litzateke. Grafia arloan Mendiburuk (M) *h-* edo *-h-* ipintzen du zenbait hitzen hasiera edo barruan, baina itzultzaileak (I) ez du inoiz horrelakorik egiten; azentu markak ugari dira M, hiru aldiz soilik I; idazkera markak: puntu, koma etab. urriagoak dira M bestean baino. Morfologian M *dugu*, *den*, *cen* erabiltzen ditu, I *degu*, *dan*, *zan*; bata *gauz*, *dembor*, besteak *gauza*, *dembora*; hark *libruz*,

⁵ Mendibururen, LXXX, orr., 6.

⁶ R.M. Azkue, "Mendibururen adizkiak eta idaztankera", *Euskera* IX urtea, I zenbakia (1928), 124.183 -ik. 124. orr.-.

⁷ Mendibururen adizkiak, 158 orr.

⁸ Mendibururen adizkiak, 179 orr.

⁹ Luis Villasante, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao 1961 -ik. 146. orr., 3.-.

¹⁰ Historia, 149, 4.

¹¹ Ibon Sarasol, *Euskal Literaturaren Historia. HASTAPENAK-9*. Lur Editoriala, 1971, 33. orr.

bigarrenak *liburuz*. Sintaxian behin aurkitu dugu genitiboa akusatiboaren ordeztu: "orien eguin dembora", besteak "oriec eguiteko dembora" egin duena; sintagmen ordena tokiz aldaturik ageri da maiz. Lexikoan dira, behar bada, aldaera gutxienak: M *aldian* eta I *demboran*, *aguitz galgarria* eta *calte aundico*, *berezten* eta *aguintcen*, *egungo* eta *gaurco*.

Horiek bi testu labur horietan aurkituak dira, baina, liburuan barrena begiratu ondoan, esaten dugu ez dela arraroa I "epinten", "iracurten", "erortzen", "jarten" eta "iraulten" formak ikustea, M "ezarcen" etab. direlarik. Ukitzen dugu **ezan* eta *egin* laguntzaileen arazoa ere, eta baieztatzen dugu bigarrenak *egin* erabiltzen duela M **ezan* ezarri duen lekuan.

3. IRAKURRALDIAREN ERKAKETA

Mendiburuk "Erregueen eguneko iracur-aldia" izena eman dio hitzaldia-ri¹², gipuzkerara itzuli edo aldatu duenak "Para el dia de la Epifania del Señor" izenburua ipini diola¹³.

3.1. Grafiaren arloan, M beti *-i-* idazten du bokal artean: "gueiago" 161,2, I ia beti *-y-*: "gueyago" 114,1, baina "bataiatu" 116,2. M zenbait hitzetan *h-* edo *-b-* ezartzen du hasieran edo barruan: "bau" 159,1, "hitza" 160,2, "bebar" 160,2, "bihotza" 163,4, baina besteak ez du bat ere jartzen. M tze, tzi egiten du: "arquitzen" 159,2, "utzi" 162,4, I tce, tci: "arquiten" 111,2, "utci" 116,1. M azentu marka asko ipintzen ditu, I hiru aldiz soilik darabil marka hori.

3.2. Fonetikaren arloan.

3.2.1. Ez dago bokal aldaketarik ez M eta ez I: biek "gucia" egiten dute, ez "gucie"; "eguna", ez "egune"; "egunean", ez "egunian" -behin "juatea" I; "gucioc", ez "guciyoc"; "galduac", ez "galdubac"; etab. Bukaerako *-a* maiz eta *-o* behin kendu du M¹⁴, ez ordea I: "escrib" 160,1, "arros" 164,2, "farise" 160,1, baina "Escriba" 112,2 "arrosa" 117,4, "Fariseo" 112,2, Barruko bokala kentzen du M zenbait alditan: "adiraci" 159,1, "bataitu" 165,4, "jaitza" 165,4, berridazten duela I: "adieraci" 111,1, "batayatu" 119,3, "jaiotza" 119,3.

¹² Mendibururen, 159 orr.

¹³ Donostiako kodizea, 110 orr.

¹⁴ Mendibururen, LXXII, 37. zenb.

3.2.2. Kontsonanteetan, M l, n, r ondotik c frikaria jartzen du: “galcen” 161,2, “quencen” 162,3, “sarcen” 159,2 I tc afrikatua: “galtcen” 114,1, “quencen” 115,3, “sartcen” 111,1. M “gaisto” 163,1, baina I “gaizto” 116,2. Fonetika sintaktikoan, biek berdin jokatzen dute, eta beraz: beti ez + b- ezpda, ez + d- beti ez d-, eta ez + c/z beti etz-/etc-, adibideok erakusten duten bezala: “ezpalu” 161,2 eta 113,4, “ez dituenac” 161,3 eta 114,2, “etzion” 162,3 eta “etcion” 115,3.

3.3. Morfologian.

3.3.1. Izenaren deklinabidean, ergatibo plurak *-ak* da bietan: “arrotzac” 160,1 eta 112,2, datibo plurala M *-ei* egiten du eta I *-ai*: “arroei” 163,1 eta “eroai” 116,2, soziatibo plurala M *-ekin* eta I *-akin*: “eroequin” 164,3 eta “eroaquin” 118,1, ablatibo bizidunetan biek *-gandik*: “andiagandic” 162,0, 2 eta “berriagandic” 113,1. Erakusleak berdinak dira bietan, salbu I bi aldiz *oriec* ipini beharrean *oec* jartzen duela, eta hiru aldiz *beren*-en ordeztan *eren* egiten duela: *oec* 112,2, *eren* 116,2. Izen ordain pertsonalak berdinak dira.

3.3.2. M bukaeratzat *-nz* erabiltzen du zenbait izenetan, bukaera hori beti aldatu egiten duela I: “atseguinz” 160, 3 ta “atseguintasun” 113,2, “ezaguncic” 163,1 eta “ezagueraric” 116,1, “irabanz” 161, 1 eta “irabaci” 113,3.

3.3.3. Aditzean. Geroaldia moldatzeko M *-en* eransten die *-n* bukaeradun partizipioei, I berriz *-go*: “izanen” 160, 3 eta “izango” 113,2. Ez dago irakurraldian *-ten*, *-tean*, *-teko* etab. formarik¹⁵, baizik eta M *-cen* etab. idazten du eta I *-tcen* etab.: “aguercen” 165,4 eta “aguertcen” 119,3. Agintekeran, ahalezkoan eta subjuntiboan *-tu*, *-i* partizipio bukaera M kendu egiten du: “beguir eguezu” 165,4, “adiraz dezaquegun” 161,2 “quen cezon” 160,1 eta “ar cezatela” 160,2; I, berriz, hori bera egiten du agintekeran eta behin subjuntiboan: “beguira guiezu” 119,3 “ar cezatela” 113,1, baina ahalezkoan eta behin subjuntiboan ez: “adieraci dezaquegun” 113,4, “quendu cequion” ‘ziezaion’ 112,2, *-ik*. ere M “Goacen ecustera” 160,3 eta I “Ecusi dezagun” 113,2-.

3.4. Sintaxian.

3.4.1. M partizipioa + ta + aditz sintagma egitura maiz erabiltzen du, besteak gehienetan aldatu egiten duela, erabiliz *-(r)ik*, *-tzean*, *-az* edo onen ondoren, adibide hauetan ikusten denez: M “artu ta... gueldituco diranac” 159,1 eta I “arturic... gueldituco diranac” 111,1; “Hau aditu ta...” 160,1 eta “Au aditce-

¹⁵ Ik. Bi testu laburren erkaketa atalean esan duguna.

an..." 112,1; "argui eguin *ta...*" 160,2 eta "arguituaz" 112,3; "hau oriec artu *ta...*" 160,2 eta "*onen ondoren...*" 113,1.

3.4.2. Adlatiboa aditz eginik¹⁶ hiru aldiz darabil M, horietako bi aldatu egin dituela I: "ez dela orien edantoqui galgarrirutzen" 163,2 eta "ez dala... ayen edantegi... galgarrietan sartcen" 116,3; "ceruraco dirala" 163,4 eta "Cerura joango dirala" 117,3, baina "ceruraco bagara" 160,2 eta "Ceruraco baguera" 113,1.

3.4.3. Ezezko perpausak partizipioa eta laguntzailea gehin-gehienetan trukatu gabe moldatzen ditu M¹⁷, eta itzultzaileak ez du aldaketarik bat ere egin. Erlatibozko perpausetan M maiz ardatza ezkerrean ezartzen du, I eskui-nean ezartzen du edo aldaketaren bat sortzen du: "*amurrai...* lebilquena" 161,3, baina "lebilquean *amorraya*" 114,2; "*mutil* prodigo galgarri, ... joan *cenari*" 162,2 eta "*mutil* prodigo gaiztoari, ... joan *zanari*" 115,2.

3.5. Hiztegia. 1. M darabilen hitzaren orde bestea bat ematen du I; 2. M darabiltzan sinonimo bikoteak desegiten ditu I, Nafarroakoa izan ohi den hitza desagertzen dela eta; 3. M darabilen hitzaren aldaera ematen du I. Ikus adibideok:

3.5.1. Hitzak trukatzeko. M aguitz 165,5, I ascoz 119,4; alde 160,2 eta ordañez 113,1; aldian 162,2 eta demboran 115,2; anitzec 163,2 eta ascoc 116,3; Atera 160,2 eta Irten 112,3; bada 161,2 eta cerren (sic -rr-) 113,4; banatzen 159,1 eta billatcen 111,1; barrendic 160,2 eta barrumbeac 112,3; deusezetaco 164,2 eta ecertaraco ... ez 117,4; edale 163,2 eta ordi 116,3; edanquetan 164,4 eta tabernetan 118,2; edantoqui 163,2 eta edantegui 116,3; egungo¹⁸ 165,5 eta gaurco 119,4; Era 163,3 eta guisa 117,2; ezperen 161,2 eta Ezpaere (ikus. OEH) 113,4; fededun 161,2 eta cristau 114,1; gabe 162,2 eta faltan 115,2; guisan 164,2 eta 165,5, baina becela 117,4 eta moduan 119,4; gogarguiz 164,3 eta arguitasunez 118,1; idorrean 161,3 eta legorrean 114,2; igorri 159,2 eta bialdu 112,1; Caltepe 159, Gaia eta Calte 111, Gaya; macurrac 165,4 eta gaiztoac 119,3; presondegui 165,2 eta Carcela 119,1; sulecean 160,3 eta Infernu 113,2; zatic 161,2 eta partec 114,1.

¹⁶ Mendibururen, LXX, 10-11 zenb.

¹⁷ Mendibururen, LXX, 12.

¹⁸ Ik. ere biek darabilten gaur 'hodie' 159, 1 eta 2, eta 111, 1 eta 2; eta gaurdanic 160, 2 eta 113, 1.

3.5.2. Bikoteak desegiten. M “*agui-guertatu*” 159,1 eta I bakarrik *guertatu* 111,1; “*anci ta aztu*” 162,2, eta *aztu* 115,2; “*atze-ondotic*” 164,2 eta *ondorendic* 117,4; “*bazca ta jaqui*” 162, 4 eta *jaqui* 115,4; “*Buru-Generalei*” 164,4 eta “*Generalari*” 118,2; *eremu-mendia*” 162,3 eta *mendia* 115,3; “*gosea ta jangura*” 162,3 eta *gosea* 115,3; “*irteten ta ateratzen*” 162,4 eta *irteten* 115,4; “*onguia ta virtutea*” 164,1 eta *virtutea* 117,3; “*ochin ta ezcutu*” 161,2 eta *ezcutu* 114,1; “*zanzan ta bazcanzan*” 162,4 eta *zanzan* 115,4.

3.5.3. Aldaerak erabiltzen. M “*amurrai*” 161,3, I “*amorrai*” 114,2; “*andi*” 160,2 eta “*aundi*” 113,1; “*bague*” 163,4 eta *gabe*” 117,3; “*beldur*” 163,4 eta “*bildur*” 117,3; *bezala*” 160,2 eta *becela* 113,1; “*erne*” 159,1 eta “*ernai*” 111,1; M *ta* maizago “*eta*” baino, I “*eta*” gehiago *ta* baino; M “*eche*” 160,2 eta “*iche*” 160,1, I beti “*eche*” 113,1 eta 112,2 etab.; “*Ibilli*” 162,3 eta “*Ebilli*” 115,3; “*igan*” 159, Gaia eta “*igo*” 111, Gaya; “*inguruturic*” 164,4 eta “*inguraturic*” 118,2; “*incensoz*” 159,1 eta “*incensuz*” 111,1; “*irur*” 165,4 eta “*iru*” 119,3; “*itsaso*” 161,2 eta “*ichaso*” 114,1; M “*jaiotza*” 159,1 eta “*jaitza*” 165,4, besteak beti “*jaiotza*” 111,1 119,3, etab.; “*Jangoico*” 159,1 eta “*Jaungoico*” 111,1; “*jaunciric*” 164,3 eta “*janciric*” 118,1; “*judatarren*” 159,2 eta “*Judatarren*” 112,1; *libru*” 164,3 eta “*liburu*” 118,1; “*naicic*” 160,2 eta “*nairic*” 113,1; “*onara*” ‘*hunc*’ 163,2 eta “*onera*” 116,3; “*ongui*” 164,1 eta “*ondo*” 116,3; -biek “*orain*” 165,1 eta 118,2-; “*pasione*” ‘*grina*’ 162,4 eta “*pasio*” 115,4; “*predicaz*” 164,3 eta “*Predicadarez*” 118,1; “*urrun*” 162,1 eta “*urruti*” 114,2; “*cenza-gabe*” 162,3 eta “*cenzu gabe*” 114,3; “*ceren*” 161,2 eta “*cerren*” 114,1.

3.6. Adizkitegian

3.6.1. M beti “*den*”, “*dela*”, “*cen*”, “*cela*” egiten du, I beti “*dan*”, “*dala*”, “*zan*” *zala*; M beti “*dezu*”, “*dezue*”, “*dezute*”, baina “*dugu*”, I beti “*dezu*”, “*dezue*”, “*dezute*” eta “*degu*”; M beti “*gara*” eta “*zara*” -ez *dugu* aurkitu -*n/-la* atzizkidun formarik-, I beti “*guera*”, *cera*”; biek beti “*diran*”, *dirala*”, “*ciran*”, “*cirala*”.

3.6.2. *Dio*, *diote*, *die*, *diete* eta *zion*, *zioten*, *zien*, *zieten* adizkiei buruz hitz egiten dugu hemen. Biek *die* erabiltzen dute ‘*die*’ eta ‘*diete*’ adierazteko: *die* ‘*die*’ 160,1 eta 112,2, eta ‘*diete*’ *dienac* 163,1 eta *diena* (sic -*a*) 116,2; M *diote* ‘*diote*’ 160,2, baina I, aldia aldatu egin duelarik, *cioen* ‘*zioten*’ 113,1; -ez dute *diete* erabiltzen-. M *zien* darabil ‘*zien*’ eta ‘*zieten*’ adierazteko: *cien* ‘*zien*’ 160,2 eta ‘*zieten*’ 165,4, baina I *ziezan* erabiltzen du ‘*zieten*’ esateko: “*ciezana*” 116,2; M *cioten* ‘*zioten*’ 160,2 eta I “*cioen*” 113,1; -ez dute *zieten* erabiltzen-.

3.6.3. M “*zait*” 163,2, I “*zat*” 115,2 eta “*zagu*” 113,1; M “*ciozcaten*” ‘*zizkioten*’ 165,2 eta 165,5, I “*cizqueen*” 118,3 eta “*ciozqueen*” 119,4; M “*ceducan*” 164,4 eta I “*ceucan*” 111,1.

3.6.4. Pluraleko hirugarren pertsona M *-t-* gabe moldatzen du noizean behin¹⁹: "daramaela" 163,2 -I *dijoacela* 117,1- "dezue" 159,1 eta "dezuten" (sic *-n*) 159,1, "luquee" 161,2, "citzaqueen" 161,1, baina I maizago egiten du hori bera: "deceela" 'dezatela' 118,2, "dezue" 111,1 eta "dezuten" (sic *-n*) 111,1, "dioen" 112,2 "due" 116,3 eta askoz urriago "dute" 119,2, "liraquean" 'lirateke' 114,1, "litzaquean" 'litzateke' 114,2, "luquea" 'lukete' 114,1, "cequien" 'zekiten' 116,2, "cioen" 113,1, "citzaqueen (sic *-ee-*) 'zitzaketen' 113,3; "cizqueen/ciozqueen" 'zizkioten' 118, 3 eta 119,4.

3.6.5. M darabiltzan *-quee*, *-quen* bukaerak I *-quea*, *-quean* egiten ditu: M "luquee" 161,2 eta I "luquea" 114,1; "lebilquen" 'lebilke' 161,3 eta "ebillico litzaquean" 'litzateke' 114,2; "liraquen" 161,2 eta "liraquean" 114,1.

3.6.6. **Ezan* eta *egin* laguntzaleei dagokionez, hau ikusten dugu: M behin idazten du *egin* eta lau aldiz **ezan*, I bost aldiz *egin* eta lau aldiz **ezan*: M "beguir eguiezu" 'iezaziezu' 165,4, I "beguira guiezu" 119,3; M *digula* 'eman diezagula' 166,1, I "eman *deguigula* 120,2; *eguiteco* 160,1 eta "eman *deguiozcan*" 'diezazkion' 112,2; *Atozea* 161,2 eta "esan *eguidazu*" 113,4; "quen *cezon* 'ziezaion' 160,1 eta "quendu *cequion* (sic *-q-*) 112,2; *Goacen ecustera* 160,3 eta "Ecusi *dezagun*" 113,2; "Esan *dezatela*" 165,1 eta "Esan *deceela*" 118,2; "eguin *cenezan*" 164,3 eta "eguin *cenzan* (sic *-nz-*) 118,1; "ar *cezatela*" 160,2 eta "ar *cezatela*" -biek berdin- 113,1.

4. ONDORIO OROKORRAK

Hauk lirateke ondorio orokorrak: 1. Nafarrera eta gipuzkera nahasirik daude: *dugu*, *den*, *cen* etab. alde batetik, eta beste aldetik *det*, *dirala*, *zan* etab. Zein den nagusi erabakitzeke, azterketa sakonagoa egin behar litzateke. 2. Itzultzaileak ez du dena berak darabilen hizkerara aldatu, zenbait gertakari daudenean utzi ditu, erraz alde edo. Gainera ez dugu ahaztu behar ez zela ari dialektologia egiten.

¹⁹ Mendibururen, LXIX, 6. zenb.

5. TESTUAREN BI ALDAERAK

Mendiburu

[119] Erregueen eguneco
iracur-aldia.

Per aliam viam reversi sunt
in regionem suam. Matt. 2.

Gaia: Caltepe anditic atera ta cerura
igan nai duenac ibilli behar du
egungo Erregue ònen eran.

Erregueen egunean agui-guertatu cèn guertatuco cela Jaincoac esanic ceducan gucia. Guertatu baño aguitz eta aguitz lenago Jerusalengo erri eta erritar guciequin ciarducala, esaten zuen *Isaias* profetac: "Ots, beguira ta erne, Jerusalem ta Jerusalengo gucioc; arguitu dà eguna eta orrà non dezuten Jangoico beraren gloria ta Jesusen jaiotza. Illumbe belcean gueldituco dà mundua ta lañope estalian sartuco dirà erriac; baña jaioco dà zuen Jangoicoa ta zuen emengo bazter onetàn arquituco dute hau urrutico gende arròtzac; arquituco dute ceruco arguiz eta barrengo jauncez betea, ta arquituco beraren izar berri batèc argui eguiten diela. Ecusico dezue cembat diràn urrutitic onèn billan datocen ta zuen Jaun hau beren Jangoicotzat artu ta Jaun beraren hume eguiñac gueldituco diranac. Madiango eta Ephaco camelu ta dromedarioac arturic etorrico dirà Sabatarrac, eta etorrico, urrez eta incensoz betèac eta Jangoicoaren jaio berri andi hau banatzen dutela". Eratsu onetan adiraci zuèn *Isaiasec* (c. 60) gaur guc Evangelio santuan ecusten duguna.

Itzultzailea

[110] Para el dia de la Eipfania
del Señor.

Per aliam viam reversi sunt in
Regionem suam. Math. 2

Gaya: Calte aunditic atera, ta Cerura
igo nai duenac, ebilli bear du
gaurco Erregueen eran.

Erregueen egunean guertatu zan, guertatuco zala Jaungoicoac esanic ceucan gucia. Guertatu baño aguitz eta aguitz lenago, Jerusalengo erri, ta erritar guciaquin ciardula esaten zuen *Isaias* Profetac: beguira, ta zaute ernai, *Jerusalem* ta *Jerusalengo* gucioc; arguitu da eguna, eta orra non dezuten Jaungoico beraren gloria, ta Jesusen jaiotza. Illumbe belcean gueldituco da mundua, eta lañope estalian sartuco dira erriac; baño jaioco da zuen Jaungoicoa, eta zuen emengo bazterretan arquituco dute au urrutico gende arrotzac, eta arquituco dute, Ceruco arguiz betea, eta beraren izar berri batec argui eguiten diela. Ecusico dezue, cembat diran urrutitic onen billa datocenac; eta zuen Jaun au beren Jaungoicotzat arturic beraren hume eguiñac gueldituco diranac. *Madiango*, ta *Ephaco* Camelu, ta *Dromedarioac* arturic etorrico dira Sabatarrac; eta etorrico dira, urrez, eta incensuz beteac, billatcen dutela Jaungoico jaio berri aundi au. Eratsu onetan adierazi zuen *Isaiasec* (c. 60) gaur Evangelio Santuan ecusten deguna.

Emen guc gaur ecusten duguna dà sarcen dirala Jerusalemen Isaiasec cion bazter urrutico irur Erregue beren dromedario ta camelu urrz, mirrhaz eta incensoz cargatu beteequin; ta sarcen, otsez ta galdez: "Non arquitzen dà judatarren erregue jaio berria?. Urrutico goiztarrac gara gu; ta ara, beràc igorri digun izar berriac gàrcari beraren oñetara, dagòzcan agur eta escumuñac eguitera".

[160] Hau aditu ta izutu ta asalatu cèn erregue Herodes ta Herodesen iche ta erri gucia, Erregue jaio berri onèc bere erreinua quen cezon beldurrez. Deitzen ditu erregue Herodesec errico jaquinsu ta escrib ta farise guciac eta galdecen die non jaio beharra dèn goiztar arrotzac dioten Erregue berri hau. "Belenen", eranzuten diote oriec. Hau icasi ta baztercen ditu goiztar Erregue bèrac eta isilic esaten die Herodesec doacela Belengo errira, ta an arquitzen badute billatzen dutèn jaio berria, datozquiola icheracoan àn ecusi dutenaren berri ònac ematera, arc ere bere aldian eguitemo jaio berri berari dagocan agur ta honr gucia.

Atera ciràn Erregue goiztar ònac Jerusalendic. Aguerce zaie Jerusalemen sarcean edo sartu baño len gorde citzaien izarra. Oni darraizcola sarcen dirà Belenen ta Jesus Erregue jaio berri beraren ichean. Arquitzen dute Jesus bere Ama Virgin andreaquin ta Jesus beràc barrendic argui equin ta ezagutzen dute dentzat edo Jangoico guizon-

Eta gaur emen ecusten deguna da, sartcen dirala *Jerusalenen*, Isaiasec cion, urrutico iru [112] Erregueac, beren Dromedari, ta Camelu, urrez, mirraz, ta incensuz cargatuaquin; eta galdetcen zuela (sic): *¿non arquitcen da Judatarren Erregue jaio berria?* Urrutico goiztarrac guera gu; eta ara berac bialdu digun izar berriac gacaizqui bere oñetara, dagozcan escu-muñac, eta agurrac eguitera.

Au aditcean, izutu, ta asalatu zan Erregue Herodes, ta Herodesen eche ta erri gucia ere, Erregue jaio berri onec bere Erreinua quendu cequion beldurrez. Deitcen ditu bada Erregue Herodesec errico jaquinsu, ta Escriba ta Fariseo guciac, eta galdetcen die: *¿non jaio bearra dan, Goiztar arrotzac dioten Erregue berri au? Belenen*, eranzun cioen oec. Au aditcean, deitcen die bazterrera urrutico Erregue oiri, eta isilic esaten die Herodesec: *Dijoacela Belengo errira, ta an arquitzen badue, billatcen duen, jaio berria, datozquiola echeracoan, an ecusi duenaren berri onac ematera; berac ere bere demboran eman deguiozcan, jaio berriari dagozcan agurrac ta honrac.*

Irten ciran bada Erregue goiztarrac Jerusalendic, eta bereala aguertu citzaien, Jerusalem [s]artcean edo sartu baño len, gorde zitzaien izar ura bera. Oni darraizcola, sartu ciran *Belenen, ta Jesus Erregue* jaio berriaren eche berean. Arqitu zuten *Jesus*, bere Ama Virgñaren compañian; eta Jesus berac oen barrumbeac arguituaz, ezagutu zuten beren Jaungoico

tzat; beren belaunac lurrera ta eguiten diote dagocàn adoranz eta agur andia, eta Erreguetzat, Jaungoicotzat eta guizontaco ezaguturic, eguiten diote urrezco, incensozco ta mirrhazco present andi eder cegocàn guisaco bat. Orrèn alde Erregue jaio berri andiagandic artu zuten gracizco ta virtutezco beste aguitz eta asco andiagoo; ta hau oriec artu ta Jesusi beren azquen adio humillac eguin ondoan, beren echeetaraco avian arquitzen ciràn ta, guizon prestu ònac bezala, Herodes erregueri eman cioten hitza osatu naicic eta Jesuralengo videa arceco asmoan; baña Jesusen aingeru onàc lotan adiraci cien Herodes gaitzez ta Erregue jaio berri hau ill naiez cebillela onèn erriaren ta ichearen berri billa; ta arganaco videa utzi ta ar cezatela beste bat beren ichera itzulceco. Eta Herodes gaistoàc nai zuena utzi ta eguin zutèn aingeru ònac esan cienà; ta eguin ciguten guc ere, gueren zori òneco eche ceruraco bagara, gaurdanic artu behar dugùn videà.

Badaquizu cer vide dèn zori òneco gure vide hau? Mundu arro eroaren esanei ez-aditu eguin ta Jesusec diona zucenqui eguitea. Hau eguiten dutènac izanen dirà zori òneco Goiztar Erregueen lagùnac eta ceruco ondasun andien ta atseguinz gucien betico jabèac; eta eguiten ez dutènac, emen bein eta guero sulecean zori gaistoco caltear galduac. Goacen ecustera bein, orain azquenic esan dugùn hau.

guizontzat; eta belaunac lurrean ezarriric, eguin cioen edo eman cioen, cegocan adoracio eta agur aundia. Eta Erreguetzat, Jaungoicotzat, eta guizontzat ezaguturic, [113] eguin cioen cegocan guisaco presente aundi eder bat, urrez, incensuz ta mirraz. Eta orren ordañez artu zuten Erregue jaio berriagandic, gueyago, ta ascoz gueyago valio zuen graciazco eta virtutezco doaia; eta onen ondoren, eta *Jesusi* beren azquen adio humillac eguin ondoan, artu zuten beren echeetaraco videà; eta guizon prestu, ta onac becela, Herodes Erregueri eman cioen itza osatu nairic, Jerusalengo videari seguitceco asmoan. Baña Jesusen Aingeru onàc lotan adieraci cien, Herodes cebillela gaitcez, ta Erregue jaio-berria ill nayez; eta arganaco videà utciric, ar cezatela beste bat, beren echeetara itzulceco; eta Herodes gaiztoac naizuena utciric, eguin zuten Aingeru onac esan cienà; eta onequin adierazten zagu, guc ere, gueren zori oneco eche *Ceruraco* baguera, gaurdanic artu bear degun videà.

¿Eta badaquizu cer vide dan zorio oneco gure vide au? Mundu arroaren esanani ez-aditu eguin, ta *Jesusec* diona zucen zucen eguitea. Au eguiten duenac izango dira alabaña, zori oneco goiztar Erregueen lagunac, eta Ceruco ondasun aundien, ta atseguintasun gucien betico jabeac; eta eguiten ez dutenac emen bein ta guero Infernu gogor sutuan, zori gaiztoco caltear (sic) galduac. Ecusi dezagun nola.

[161] & I.

Emen ta guero zori gaistoco caltearrac dirà mundu eroaren esanac eguin naicic Jangoicoaren esana uzten dutènac.

Bai, emen bertan ere zori gaistoco caltearrac dirà emengo eroen esana eguin naiez Jangoicoaren esan eguiten ez dutènac; bada Jangoicoaren esanac eguiten ez dituzten gaisòac galcen dituzte esan oriec eguitez eguin citzaqueen irabanz andiac; eta irabanz, Jangoicoaren esanen eguin aldi orocoac eta aldi oro (berez) andiago ta andiagoac.

Baña cer irabanz-irabaciac? Guc adiraz dezaquegùn baño aguitz andiagoac. Atozea ezperen; anitz eta asco irabacico ez luque ogei urtez hordu oro edo egunean amar aldiz eun milla ogei zorcico irabazten lituen guizonàc? Bai ta urte bat baicic irabanz orrelacotan eguiten ezpalu ere; bada urte orretan irabacico lituque irur ogei ta amar milletan mill ta gueiago ochin ta ezcutu. Gueiago irabacico luque, irabazten balitu esan ditugun diru guciequin batean munduo beste guciac, lurpe gordean arkitzen diràn urre ta cillar, diamante ta beste arri edèrrac, itsasotic atera diràn ta ateratzeco dauden perlac eta coral guciac; bai ta itsaso ta ibai ta mendi ta mundu gucia ere; baña cein ere andiac liraquen irabazte oriec, ez luquee pits bat valioco Jangoicoaren esana eguin aldi bacoitzean fededun onàc eguiten duèn irabaciaren aldean; ceren aldi orietan irabazten duèn fededunac Jangoi-

1.

Bai; emen bertan ere zori gaistoco caltearrac dira, emengo eroen esana eguiteagatic, Jaungoicoaren esana eguiten ez dutenac; bada Jaungoicoaren esanac eguiten ez dituztenac galtcen dituzte, esan oriec eguin ñarequin eguin citzaqueen irabaci andiac; eta aldi oro, aundiago ta aundiagoac.

¿Baña cer irabaciac? Guc adieraci dezaquegun baño, aundiago ta aundiagoac. Ezpaere esan eguidazu: ¿asco, ta asco irabacico ez luque, ogei urtean ordu oro, edo egunean amar aldiz, eun milla zorcico irabazten lituquean guizonac? Chit asco, urte bat bacarra baicic irabaci orretan eguiten ezpalu ere; cerren urte orretan irabacico lituque, irurogei, ta amar milla bider milla, [114] ta gueyago ezcutu. Gueyago irabacico luque, irabazten balitu, esan ditugun diru guciaquin batean, beste munduco guciac, lurpean arquitcen diran urre, cillar, diamante, ta beste arri ederrac; ichasotic atera diran, ta ateratceco dauden perla, ta coral guciac; baita ichaso, ibai, mendi, ta mundu gucia ere. Bada cein ere aundiaco liraquean irabazte oriec, ez luquea pits bat valioco, Jaungoicoaren esana eguin-aldi bacoitcean, cristau onac eguiten duen irabaciaren aldean; cerren dembora orietan irabazten

coaren gracia, ta graciaren edocein zatic valio duèn beste guciac baño aguitz gueiago. Irabazte andi hau, bada, ta munduaren esanquizun eroagatic uzten dituèn beste guciac galcen ditu Jangoicoaren esanac eguiten ez dituèn aldi oro. Orrà cer caltea alde onetatic orri datorquiona!

Jangoicoaren esànac besteren esanquizun eroagatic eguiten ez dituenàc galcen du bigarren lecuan animaco atseguinz eta atsedete andi bat. Bai, Jangoicoac beretzat eguiñac gara gu gucioc eta gure Jangoico berarequin ongui etorri ta bat eguiñic vici behàrrac. “Ala da, dio S. Agustinec: *fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum est cor nostrum, donèc requiescat in te*; ta Jangoicoaren esanac munduco esauizunac gatic eguiten ez dituenà Jangoicoarequin ez dà bat, Jangoicoaren iguesca dabillen anima dà; ta orregatic dà amurrai uraren iguesca idorrean lebilquena bezalacoa; bada amurrai hau idorrean quezcaz eta egarriz betea ta salto ta salto ta sosegancic bague lebilquen bezala, Jangoicoaren iguesca dabillen ta mundu eroaren beldurrez Jangoicoaren [162] esànac uzten dituenà bere atseguinz-tegui leunetic urrun arkitzen dà ta quezcatogui gaistoan aguitz sartua da ta naigabèz erdi ill-illundua.

Hau dà Davidec adiraci nai diguna esaten digun aldian: “anci ta aztu zait nere oguia jatea ta igartu dà nere

duen cristau onac Jaungoicoaren gracia; eta graciaren edocein partec balio du, sortu alditequean guciac baño, aguitz gueyago. Irabazte aundi au bada, eta munduaren esanquizun eroagatic uzten dituen beste guciac galcen ditu, Jaungoicoaren esanac eguiten ez dituen dembora, ta ocasio gucietan. ¡Orra bada cer caltea, alde onetatic onelacoari datorquiona!

Jaungoicoaren esanac, besteren esauizun eroagatic, eguiten ez dituenac, galcen du *bigarren* lecuan animaco atseguintasuna, eta atsedete aundi bat. Bai, Jaungoicoac beretzat eguiñac guera gu gucioc; eta gure Jaungoicoarequin ongui gatocela, berarequin bat eguiñic vici bear degunac. Ala da, dio San Agustinec itz oetan: *fecisti nos, Domine, ad te, et inquietum est cor nostrum, donec requiescat in te*. Eta Jaungoicoaren esanac, munduco esanquinacgatic eguiten ez dituenà, ez dà bat Jaungoicoarequin; baicic da anima bat, Jaungoicoaren iguesca dabillena; eta orregatic da, uraren iguesca, ta legorrean lebilquean amorraya becela; bada amorrai au, quezcaz, ta egarriz betea legorrean, ta saltoca, ta soseguric gabe ebillico litzaquean becela, berebat dabill Jaungoicoaren iguesca, mundu eroaren beldurrez, Jaungoicoaren esanac eguitea uzten dituenà; arkitzen da alabaña bere atseguintasun leunetic urruti, aguitz sartua dago quezca gaiztoetan, eta, erdi [115] illa edo illundua, bere naigabeetan.

Au bera da *Davidec* adieraci nai diguna esaten digunean: aztu zat nere oguia jatea, eta igartu da nere viotza:

bihotza": *aruit cor meum, quia oblitus sum comedere panem meum* (Ps. 10,15); bada animaren oguia dà Jangoicoac nai duena bere aldian eguitea ta eguinz onèn alde Jangoico beràc ematen duèn gracia ta atseguinza; ta graci ta atseguinz hau gabe guelditzen dà Jaunaren esanac ez eguiñez irabazten ez duena, ta aguitzen ta guertatzen zaio mutil prodigo galgarri, bere aitaren ichetic atera ta urrutico bazter batera joan cenari, guertatu ta aguitua.

Bere Aitaren esanac ez eguin nairic, joan cèn mutil cenzagabe hau gogoàc eman cion urruti batera. Ibilli cèn an mundu eroàc eta aragui sutuàc adirazten dutèn videz ta eran. Bere iguesc eroan galdu zuèn aitaren maico jan-edan goisosa ta icheco lan garbia. Aren urrutico eguitecoa cèn cherri-zanza. An zuèn mai ta oguijanari ta jaqui gucia cèn eremu-mendia ta mendico ezcurra. Jaten zuèn ezcurra etzèn ari cegòcan janaria, ta janagatic etzion ònic eguiten, ez eta quencen ere zuèn gosea ta jangura ta nai vicia; ta egun oro arquitzen cèn gaizquiago ta quezcaz ta illunqueriz bete galduagoa; ta bere illunqueri, quezc eta naigabetic etzen atera Aitagana itzuli, arequin ongui baquetu ta icheco mai ònera cen arte gucian.

Munduaren esanquizunac gatic Jangoicoaren esànac eguiten ez dituena irteten ta ateratzen dà Jangoicoaren adisquidanz ecin obetic eta ichetic, eta sarcen dà mundu

aruit cor meum, quia oblitus sum comedere panem meum. (ps. 10.15): bada animaren oguia da, Jaungoicoac nai duena bere demboran eguitea; eta eguite onen ordañez ematen du Jaungoicoac, bere gracia, ta atseguintasuna; eta gracia, ta atseguintasun onen faltan guelditcen da, Jaunaren esanac eguiten ez dituen edocein persona; eta guertatcen zaio, mutil prodigo gaiztoari, bere Aitaren echetic atera, eta urrutico bazterretara joan zanari, guertatu citaiona.

Bere Aitaren esanac ez eguin nairic, joan zan mutil censu gabe au, gogoac eman cion lecueta. Ebilli zan an, mundu eroac, eta aragui sutuac adierazten duen guisamoduan. Bere iguesca eroarequin galdu zuen Aitaren maico jan edan gozoa, ta echeco garbitasuna. Aren urrutico eguitecoa zan cherri zanza. An zuen maya, oguia, janaria, ta jaqui gucia zan mendia, ta mendiac ematen zuen ezcurra. Jaten zuen ezcurra etzan, ari cegocan janaria; eta janagatic etcion onic eguiten; ez eta quentcen ere, beti berequin ceucan gosea; eta egun oro arquitzen zan gaizquiago, ta quezcan, ta illunqueriz beteagoa; eta bere illunqueri, quezca, eta naigabetic etzan irtengo, Aitagana itzuli, arequin paquean jarri, ta echeco mai onera biurte ezpaliz.

Munduaren esanquizanacgatic, Jaungoicoaren esanac eguiten ez dituena, irteten da Jaungoicoaren adisquidetasun ecin obetic, eta sarcen da mundu gogorraren, ta bere

beraren ogui gogorrean ta pasione galgarri gaistoen zanzan ta bazcanzan. Or jaten duena dà pasione galgarri bèrac nai duten ta mundu gaistoàc ar-erazten dion bazca ta jaqui ciquin izurritzcoa. Janari onèc uzten du asea ez, baicic gose gueia-goz galdua; bada Jangoico bera dà bere graci eztidun goisoarequin animari dagocàn janaria, ta janari onèc ezpada, ecin ill dezaque, S. Bernardoc dionaz, animaren gosea: *capacem Dei, quod minus Deo est, non implebit* (Sup. Ecce reliquimus omnia); ta janari hau edo Jangoicoaren esanac, utzi ta mundu galgarri gaistoaren macurrac eguiten dituenarena dà ur gacizco itaso, beti iraquiten dagoanaren eracoa ta sosegancic baguea: *quasi mare fervens, quod quiescere non potest* (Isai. 57,20). Orra cer caltea Jangoicoaren esana eguiten ez duènac saiets onetatic izaten duena.

[163] & II.

Bere lan oquer hau eguiten duèn animac badu beste calteric ere. Hau dà, mundu berarequin ere gaizqui guelditzea. Hau ere bere, naigabe berriraco gai egoqui quezcaria dà. Badira bataitu beren artean gaisto guti ez, ongui vici diranei eguiten dienac len leneco ònei gentil itsuac eguiten cienac. Ecusten zuten len gentil itsuac bataitu ònac etzirala sarcen aien jostaquet ciquin, ibiller arin ta joan-etorri galgarri eroetan. Ecusten

pasio gaiztoren zanzan. Or jaten duena da, pasio galgarri berac nai dutena, ta mundu gaiztoac arrerazten dion, jaqui ciquin izurritzcoa: Eta janari onec uzten du, ez asea, baicic gose gueyagoz galdua; cerren Jaungoico bera da bacarric bere gracia eztidun gozoarequin, animari dagocan jana[116]ria; eeta janari onec ezpada, ecin ill dezaque, San Bernardoc dionez, animaren gosea. *capacem Dei, quod minus Deo est, non implebit*¹ (sup. ecce reliquimus omnia); eta jaunari au, edo Jaungoicoaren esanac utci, ta mundu gaizto galgarriarenac eguiten dituenada, ur gacizco ichaso, beti iraquiten dagoanaren eracoa, aleric sosegu gabe: *quasi mare fervens, quod quiescere non potest*. (Isai. 27.20). Orra cer caltea izaten duen sayets onetatic, Jaungoicoaren esana eguiten ez duenac.

2.

Bere lan oqu au eguiten duen animac, badu beste calteric ere; eta calte au da munduarequin ere gaizqui gelditcea. Au ere gai egoqui ederra da, bere naigabe berriraco. Badira bataiatuen artean gaizto asco, ondo vici diranai eguiten diena, lenvicico onai, gentil itsuac eguiten ciezana. Ecusten zuten gentil itsu oec, bataiatu onac etcirala sartcen ayen jostaqueta ciquin, ibillera arin, ta joan etorri eroetan. Ecusten zuten, orduco bata-

¹ Eskuidatzian (E) "implevit.

zutèn horduco bataitu ònen eguiteco gucia cela beren Eliza, beren echea, beren lana eta munduco eraqueri arroi ez beguiratzea ta aldi berean Jesus Maiteac aguertu zuèn ceruco videtic oñic ez ateratzea, ta esaten zuten, dio S. Augustinec, gauz ònen ezaguncic etzutela bataitu fededunac, baserritar motelac ciruditela ta hitz eguiten ere etzequiten guizonac: *ubicumque invenerint Christianum, solent insultare, exagitare, irridere vocare hebetem, insulsum nullius cordis, nullius peritiae.*

Eta orain ecusi ezquero oraingo bataitu edale gaistoac bataitu òn bat edo beste ez dela orien edantoqui galgarrirutzen, ardit bat ongui gatasten ez daquien guizona dela diote, ta aldi berean histaz ta irriz dagozca. Beste hitz-onciqueri ta berriquet eroa baicic ez diràn anitzec beren eguitecoz ara dijoacen edo onara datocen ònei beguiratu ta, edo orien erausi eròac utzi ta Elizan sarcen dirala ta ango beren lanac eguin ta beren icheraco videa daramaela ecusten badute, buru, begui, ezpañez queñatu ta escarnioca esaten dute ez aditzeco obea dèn cer edo cer

Gazte batec atera nai ezpadu beste eroen danz perillezcora, jan-edan berora edo beste eraqueriren batera, eguiten duela diote edo andiz edo diruric ez eman naiez edo ceren ecertaco ez dena den. Era orretaco gauzac ez aditu naiez Jangoicoaren esanac utzi ta munduco ero gaistoen

yatu onen eguiteco gucia zala, eren Eliza, eren echea, eren lana, ta munduco arroqueri eroai ez beguiratzea, ta dembora berean, Jesus maiteac aguertu zuen Ceruco videtic oñic ez ateratzea; eta au gucia esaten zuen, dio San Agustiñec fededunacgatic, gauza onen ezagueraric etzutela, baserritar motelac ciruditela, eta itceguiten ere casi etcequien guizonac cirala: *ubicumque invenerint christianum, solent insultare, exagitare, irridere, vocare hebetem, insulsum, nullius cordis, nullius peritiae.*

Oro orobat guertatcen da gaurco egunetan ere; bada asco ordi gaiztoc, ecusten badue, ez dala cristau on bat edo beste, ayen edantegui edo taberna galgarrietan sartcen, esango due bereala, ardit bat ondo gatatcen ez daquien guizona dala, eta dembora berean egongo zaizca burlaz, ta iscaz ondorenetic. Beste itz-onci, ta berriqueta baicic ez diran ascoc, beren eguitecoz ara dijoacen, edo onera datocen [117] Jaungoizcozcoai beguiratuta, edo orien erausi eroac utciric, Elizan sartcen dirala, eta beren ango lanac eguiñic, demboraz beren echeetara dijoacela ecusten badue, queñuca, ta escarnioca esaten due, ez aditceco obea dan cer edo cer.

Gazte batec irten nai ezpadu, beste eroen danza perellezcora, edo beste eraqueriren batera, eguiten duela, esango due, aunditasunez, edo diruric ez eman nayeze, edo cerren ecertaco ez dana dan bere personan. Eta guisa onetaco gauzac ez aditu nayeze, Jaungoicoaren esanac utci, ta

vide macurra arcen dutènac virtutezco ta buruzco fededun guiciequico anitz galcen dute, bai ta galeraci dituzten gaisto berequico ere.

Orien galgarri oriei beguitan ematen die besteen virtuteac, ceren virtutez betèac oriec eta virtuteric bague beren buruac ecusi ta illuncen zaien bihotza, ta beldur diràn, orien guisan vici ezpazara, beste guciac ceruraco dirala ta bèrac ez; ta naigabe hau beregandic quenceco videa dela uste dute, dio S. Geronymoc, beren guisaco gaisto beste guciac eguitea: *remedium poenae suae arbitrantur, si nemo sit sanctus... si turba sit pereuntium, si multitudo pecca[n]tium*; bada azque[164]nean ezagutcen dute gaisto galgarri bèrac òna dela onguia ta virtutea, ta hau dela, S. Ambrosioc dion bezala, bataitu guciac billatu behar dutena: *apud omnem christianum prima honestatis debet esse militia*.

Ecusten badute beren guisan beste oriec ere galdu dutela zutèn òn pisca ta eguin dirala orien ibiller arin ta macur galducoac, esaten dute orien atze-ondotic elcarri beguiratu edo bacoitzac berequico: "Bai eguizqui, orrà gure guisaco galduac oric ere"; ta gueroz arros edo clavelin luzaro escuan erabilliz galdu baten guisan baztertzen dituzte ta uzten deuseze-

munduco eroen bide gaiztoa artcen dutenac galtcen due aguitz asco, bai virtutezco cristau guciaquico; baita galeraci dituzten gaizto berequico ere.

Modu onetaco gaiztoai beguitan ematen die, besteen virtuteac, cerren ecusiric oriec virtutez beteac, eta eren buruac virtute gabe, illuncen zaie viotza, eta bildur dira, orien guisan vici ezpadira, beste guciac *Cerura* joango dirala, baña ez berac; eta naigabe au beregandic quentceco videa dala, uste due, dio San Geronimoc, beste guciac, beren guisaco gaiztoac eguitea: *remedium poenae² suae³ arbitrantur, si nemo sit Sanctus: si turba sit pereuntium, si multitudo peccantium⁴*: baña azque-
nean ezagutcen due gaizto oriec berac, ona dala virtute gucia, eta au dala, San Ambrosioc dion becela, bataiatu guciac billatu bear duena: *apud omnem christianum, prima honestatis debet esse militia⁵*.

Ecusten badue, berac becela, galdu dutela beste oriec ere artean izan zuten virtute pisca, eta eguin dirala, orien ebillera arin ta pauso gaiztoen jabe, esaten due ondorendic, edo bacoitzac bere artean: Eguiaz orrà oriec ere, gure guisaco galduac; eta gueroz baztertzen dituzte, edo uzten dituzte ecertaco ere ez dirala, luzaro escuan erabilli dan claveliña, edo

² E "pene".

³ E "sue".

⁴ Orijinalean "peccatum"

⁵ E "militia"

taco. Eta orrà irugarren zure calte andia: mundu ero galduari atseguin eguin naiez, cere burua galdu ta mundu berarequin ere caltear ta gaizqui gelditzea.

& III.

Baña laugarrena dà zure calteric andien gaistoena, ta hau dà munduco galdu eroequin ongui etorri naicic, Jangoico maitagarriarequin gaizqui guelditzea. Cere bataio santuan eman cenion Jangoicoari mundu eroaren esan ta arrotasunac utzi ta beràc esaten cizun gucia zucenqui eguiteco hitza. Hau zuc errazquiago eguin cenezan, an bertan graciz ta virtutez jaunciric utzi cinduen Jangoico berac eta crismaz ta guruttez ongui sendortua; ta al-ere zuc mundutar eroen esanquizunagatik uzten badezu Jangoicoac bere leguez, bere gogarguiz, bere predicariz, confesor ònez, libru zucenez ta beste videren batez esaten dizuna, cere Jangoicorequin nola guelditzen zara? Aguitz gaizqui ta galdua; bada Jangoico beràc dio zure guisaco edocean bere tribunalean agueren zaion aldian, ez-ecusi eguin ta bere etsaien escuan utzico duela: *qui me erubuerit, et meos sermones, hunc Filius Hominis erubescet, cum venerit in majestate sua* (Luc.9,26).

Bada gaizqui guelditzen bada mundutarren esanquizunagatik Jangoicoaren esanac uzten dituena, nola gueldituco dà Jangoicoaren esanac utzi ta mundutarren esanac eguiten dituena ta mundutar galdùen guisaco

arrosa baten guisan. Eta orra irugarren zure calte andia; mundu ero galduari atseguin eguin nayeze, cere burua galdu, ta mundu berarequin ere, caltear ta gaizqui guelditzea.

[118] & 3.

Baña orjic guciac orrela diralaric, laugarrena da, zure calteric andiena ta gaiztoena: eta au dá, munduco galdu eroaquin ondo etorri nairic, Jaungoico maitagarriarequin gaizqui guelditzea. Cere Bautismo Santuan eman ciñion Jaungoicoari mundu eroaren esanac eta arrotasunac utci, eta berac esaten dizun guci gucia zuzen eguiteco itza. Eta au zuc errazago eguin cenzan, an bertan utci cinduen janciric graciaz ta virtutez Jaungoico berac; eta ala ere zuc, mundutar eroen esanquizunagatic uzten badezu, Jaungoicoac bere leguez, bere arguitasunez, bere Predicadorez, Confesore onez, liburu zucenez, edo beste videren batez esaten dizuna: ¿nola guelditcen cera cere Jaungoicoarequin? Aguitz gaizqui, ta galduric: cerren Jaungoico berac dio: zure guisaco edocean bere Tribunalean aguertcen zaion demboran, ez ecusi eguin, ta bere etsayen escuan utzico duela: *qui me erubuerit, et meos sermones, hunc filius hominis erubescet, cum venerit in majestate sua.* (Luc. 9.26).

Bada gaizqui guelditcen bada mundutarren esanquizunagatic Jaungoicoaren esanac uzten dituena, ¿nola gueldituco da Jaungoicoaren esanac utciric, mundutarren esanac eguiten dituena, ta mundutar gal-

edanquetan, jostaquet gaistoan ta lan galduan dabillena? Itsutu galdua ta deabru gaistoen atzapar sutuàn aguitz sartua, len esanquizon char baten beldurrez Erregue Sedecias emengo bere etsaienean bezala. Esan cion Jeremias Profetac Sedecias Erregueri, galdu nai ezpazuen bere burua ta Jerusalengo erria joan cedi-lla erria inguruturic ceducan egercituco Buru-Generalei ònez hitz eguitera. “Baña cer esan behar dute, Profeta”, eranzun cion Erreguec Jeremias, [165] “guizon oriequin an arquitzen diràn gure erritar gaistòac?”. “Esan dezatela nai dutena”, esaten dio Profetac; “Jangoicoac diona dà nic orain zuri esaten dizudana ta hau dà beste orien erausi eroac utzi ta zuc eguin beharra”.

Al-ere etzuen Erreguec eguin Jangoicoaren esana ta quendu cion Nabucodonosor Erregueren gendeac bere Jerusalengo erria, atera ciozcaten bere bi beguiac ta eramán zuten Babilonira, ango presondegui latz gogorrean bere egunac nequez beteric bucatzera.

Era orretan, bada, mundu char eroaren esanquizunagatic Jangoicoaren esanac eguiten ez dituenac urratzen du Jangoico beraren leguea ta sulececo gogorrac arcen du preso, ondatzen dute infernu vician bere becatu gaistòac, uzten dute itsutugaldua seculaco bere vician ez ezagutzeco Jangoicoaren vide zucena:

duen guisaco tabernetan, jostaqueta ciquiñetan, ta ibillera lizunetan dabillena? Erregue *Sedecias* esanquizon char baten beldurrez guelditu zan becela. Esan cion Jeremias Profetac *Sedecias* Erregueri, galdu nai ezpazuen bere burua, ta Jerusalengo erria, joan cedi-lla, erria inguraturic ceucan Ejercituco Generalari onez itceguitera. ¿Baña cer esan bear du, *Profeta*, eranzun cion Erreguec Jeremias, guizon orrequin an arquitzen diran gure erritar gaiztoac? Esan deceela nai duena, eranzun cion Profetac: Jaugoicoac diona da, nic orain zuri esaten dizudana: eta au bera da, beste orien erausi eroac utciric, zuc eguin bear dezuna.

Ala ere etzuen *Erreguec* eguin Jaugoicoac esana, eta quendu cion *Nabucodonosor* Erregueren jendeac, bere Jerusalengo erria: atera cizqueen gañera bere bi beguiac, eta [119] eramán zuten Babiloniara, ango Carcela gogor ciquiñetan, bere egunac nequez beteric bucatzera.

Mundu char eroaren esanquizunagatic, Jaugoicoaren esanac eguiten ez dituenac, era orretan bertan urratzen du Jaugoico beraren leguea, ta irabazten du Infernu gogorreco carcela; bada ondatzen dute Infernu vician bere pecatu gaiztoac, eta uzten dute ichuturic, seculan ez ezagutzeco Jaugoicoaren vide zucena: *ambu-*

6. E “ceci”.

ambulabunt ut caeci, quia Domino peccaverunt (Sophn. 1,17), ta gueldittzen dà suz, amurrancez eta tormentuz betea.

Orrà cer caltèac mundutar eroen esan macurrac eguin ta Jangoicoaren zucènac eguiten ez dituzten bataitu gaistoena; eta orrà, zure beguira daude orien etsai borrero bèrac, izaten bazara zu mundutar galduen beldurti char eroetatic bat, cere aldian zu orien aldera eramateco ongui prestatuac. Zori gaisto orretan zu ez guelditzeco, beguir egueizu Jesus jaio berriaren billa datocen irur Erreguei. Orien erritarrac aditu zutenan orien horduco asmoa ta, ceren ecusi zutèn izar berri bat, joan nai zutela non jaio cen etzequitzen Erregue baten billa, "Ametsa", esanen cien, "ta eraqueria! Noizean bein aguercen dirà era bereco izar berri, Erregue berrien jaitzic aguercen ez dutènac eta orietatic bat izanen dà gucioc ecusten dugùn ori ere. Cer eraqueria, bada, icasi bague eguia den edo ez Erregue berri orren jaitza, orren billara zuec ceren ichetic ateratzea?".

Orrelaco eta era bereco beste anitz gauz adituco cituzten beren gendeetatic egungo Erregue ònac; baña orien erausi gucièi ez-aditu eguin ta Jangoico Erregue jaio berriaren izarrari ta Jangoico beràc barrendic adirazten cien gauzari beguiratuaz, artu zutèn hura billatzeco asmoa, ta anitz nequeren buruan bacen ere, arquitu zuten Belenen Jangoico guizon Erregue jaio berria, ta arquitu zuten

labunt ut caeci quia Domino peccaverunt. (Sophon. 1.17); eta gueldittzen da tristea, suz, amorracioz, ta tormentuz betea.

Orra cer calteac, mundutar eroen esan gaiztoac eguin, eta Jaungoicoaren zucenac eguin gabe gueldittzen diran batayatu gaiztoenac. Eta orra, nola zure beguira dauden etsai borreroac, zu berac dauden toquira eramateco, baldin izaten bacera, mundutar galdu, ta beldurti eroetatic bat. Zori gaiztoco estadu negargarri orretan irichi ez zaitecen, beguira guiezu, Jesus jaio berriaren billa datocen iru Erregueai, eta eguizu moduren batean oriec eguin zutena. Orien erritarrac aditu zuenean orien orduco asmoa, esaten zuen; amesa, ta eraqueria zala, non jaio zan etcequien Erregue baten billa juatea, izar berri bat aguertu zalaco. Noicean bein aguertcen dira era bereco izar berriac, Erregue berrien jaitzatic aguertcen ez dutenac, eta orietatic bat izango da, gucioc ecusten degun ori ere. ¿Cer eraqueria ez da bada izango, Erregue berri orren jaitza eguia dan edo ez jaquin gabe, orren billa zuec ceren echetic irtetea?

Orrelaco, eta era bereco beste asco gauza adituco cituzten jendeetatic, gaurco Erregue onac; baña orien erausiai ez aditu eguiñic, eta Jaungoico jaio berriaren izarrari, ta Jaungoicoac beren barrumbean adierazten cien gauzari beguiratuaz, artu zuen ura billatceco asmoa; eta asco nequeren buruan bazan ere, arquitu zuten Belenen Jaungoico guizon Erregue jaio berria; eta eguiaz archi-

beren atseguin ta poz ecin andiago batequin. Eguin ciozcaten lureco beren presentac. Artu cituzten ceruco aguitz andiogoac. Itzuli ciràn beren echeetara. Vicitu ciràn an behar cèn guisan ta santuqui, ta guciagatic ceruan arquitzen dirà gaur ta arquiteco dirà beti atseguinzez ta gloriz ase betèac.

[166] Zori òneco humèac gu, arcen badugu orien vide bera, Jangoicoac nai duena zucenqui eguitemeco, ta eguitemeco gueren vicitzan beti; bada gueroz izanen gara orien beren ceruco lagun secula gucian ta beti. Jangoico-guizon jaio berri maitagarriac digula artaco dèn lagunz eta graci gucia. Bai arren, bai.

tu zuten beren atseguin, ta poz ecin andiago batequin. Eguin ciozqueen lureco beren presentac; eta artu cituzten Ceruco asco aundiogoac. Itzuli [120] ciran beren echeetara; eta vicitu ciran an, bear zan moduan. Eta guciagatic arquitecen dira gaur Ceruan, eta arquiteco ere dira beti atseguintasunez, ta gloriac beteric.

Zori oneco humeac gu, artcen badegu orien bidea, Jaungoicoac nai duena zucen eguitemeco gueren vicitza gucian; bada gueroz izango guera orien lagun, secula gucian Ceruan; eta au da gucioi deseaten dizuedana, nerequin batean. Jaungoico jaio berriac eman deguigula bada, artaraco bear dan lagunza, ta gracia.

Jaza, 114

*Celle aunditi itera, ta Cerua igo nai duenac, di
ti bear da gaur Jaungoicoac.*

*Errequeen eguitemeco gueren vicitza, gueren
lureco asco aundiogoac. Itzuli ciràn beren echeetara.
Vicitu ciràn an behar cèn guisan ta santuqui, ta
guciagatic ceruan arquitzen dirà gaur ta arquiteco
dirà beti atseguinzez ta gloriz ase betèac.*

*[166] Zori òneco humèac gu, arcen badugu orien
vide bera, Jangoicoac nai duena zucenqui eguitemeco,
ta eguitemeco gueren vicitzan beti; bada gueroz
izanen gara orien beren ceruco lagun secula gucian
ta beti. Jangoico-guizon jaio berri maitagarriac
digula artaco dèn lagunz eta graci gucia. Bai arren,
bai.*

*tu zuten beren atseguin, ta poz ecin andiago
batequin. Eguin ciozqueen lureco beren presentac;
eta artu cituzten Ceruco asco aundiogoac. Itzuli
[120] ciran beren echeetara; eta vicitu ciran an,
bear zan moduan. Eta guciagatic arquitecen dira
gaur Ceruan, eta arquiteco ere dira beti atseguin-
tasunez, ta gloriac beteric.*